


TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko ekainaren 22a. IX. urtea. 2.372. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Meltxor Ezkurdiaren bizitza jaso dute lan batean

XIX. mendeko eskribaua ekarri du gogora
Juan Garmendia Larrañaga tolosarrak **3**



Juan Garmendia Larrañaga, liburua eskuartean duela. I.G.L.



→ **Herritarrak artista bihurtuta.** Tolosako Aranburu jauregian 300 bat artisten lanak ikusi daitezke uztailaren 7a arte. Artistak dira, baina ez profesionalak, izan ere, kultur etxeko tailerretako ikasleak dira batzuk, eta Goienetxe fundazioko eguneko zentroko erabiltzaileak, besteak. 17:30etik 20:30era ikusi daitezke artelanak. **2**

Blues musika zabalduko da Tolosan, ekainaren 29tik aurrera

Tolosandblues jaialdiaren barruan Velma Powell eta White Towels Blues Band izango dira, besteak beste **5**

San Joan suaren bueltan festa izango da bihar, eskualdeko herrietan

Urteroko ohiturari jarraituz sua piztu eta dantzan eta kantuan ariko dira herriko plazetan **7**

Alegian bizi diren herritarrek euskarara gerturatzeko aukera izan dute

Alegiako Udalak hiru irakasle boluntariori esker antolatatu ditu eskolak; 40 ikasle izan dituzte **6**

SCOOTER
KEEWAY ARN125
2.600 €-en balorarekin

Kaskoa ere
oparituko dugu!

Eman alta eta
moto ikusgarri honen
zozketan parte hartuko duzu!

Ekainaren 1etik 30era arte

logikaline

943 31 86 11

San Francisco, 19. Tolosa



Banatzale
ofiziala

✉ **Gutuna**

Sinatu gabeko eskuorria

Postontzia ireki eta hara! Gutun anonimo bat! Kanpoaldean *Atez ate ez!*, *Zikinkeriarik Ez*, *Tolosa Txukun!* eta *Biriziklapena Bai!* moduko mezuak datoz idatzita. Barruan, berriz, atez ateko sistemaren aurkako firma bilketa helburu duen ekimena azaltzen du, eta beherago nire izena, abizenak, NAN-a, eta sinadura idatzeko tartea. Ez hori bakarrik, eskuorria postaz zigilurik gabeko gutun bezala auskalo nora bidaltzeko eskatzen dute.

Asaldaturik nago! Nork bidali du hau! Sinatu gabeko eskuorria da, helbiderik gabekoa. Bidaliko al zenizkioke zure datu pertsonalak eskuorrian azaldutakoarekin ados egonda ere ezezagun bati? Norberarenak diren datuak babesarako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak babesten al gaitu honen aurrean? Eskuorrian datuak sinadura bilketarako baino ez direla erabiliko esaten da. Firmatu gabeko dokumentuak dienez fidatuko al naiz? Herri-ekimen legegilea arautzen duen martxoaren 26ko 3/1984 Lege Organikoak betetzen al du ekimen honek? Orain arte ezagututako firma bilketa serioek notario baten presentzia eskatu dute, eta noski, firmatu nahi izanez gero, pertsonak hara bertaratu behar du. Bestela lortutako sinadura guztiak ondoren notario bati egiaztatzeko erakutsi. Baina ze asmo dago atzean?

Eskuorrian bertan azaldutako zenbait gauza komentatu nahi nituzke. Hasteko, atez atekoa inposaketa dela dio, %24-a birziklatzetik %80-ra pasatzea denon aurkako neurria balitz bezala, errauste planta erabat demokratikoa da noski, kontutuan hartuta alderdi guztiak presente egon zirela. Osasungaitza omen da, zer hondakin mota sortzen dugu ba? Arazoak hondakin guztiak nahasterakoan sortzen dira. Intimitatea babes-tu nahi dutela dio, hondakinaren artean zer bota nahi dute ba? Lotsatzeko moduko zerbaitez? Edukiontziek eskaintzen duten anonimotasunetik at guk sortu-

tako hondakinaren arduradunak gu geu gara. Zikina dela dio. Hernani eta Usurbileko zenbait irudi jaso eta haiekin Photoshopp muntaiak egitea oso portaera garbia da. Eskuorrian edukiontzi garbier marrazkiak ageri dira, ez al zuten benetako edukiontzi garbier aurkitu argazkiak ateratzeko? Zikin dagoena da zikina. Dena egon daiteke garbi edo zikin, dena. Zabor turismoa sortzen omen du, izan ere askoz erosoago da etxeko hondakinak jaso eta kotzez beste herri batera eramatea etxeko atari ondoko zizilikarioan uztea baino. Bilketa sistema garestiagoa dela dio, bai, hori egia da, izan ere langile gehiago behar dira lanpostu gehiago sortuz, baina ondorengo onurak kontutan hartu behar dira, eta kudeaketa guztia aztertuta merkeago dela ohartuko ginatke. Hermanikoei galdetu ea ondorioz tasak igo ote zaizkien.

Hau bidali duenak Tolosan alarma piztuz krispazioa sortu nahi du herritarren artean, eta horretarako portaera iruzurtiak erabiltzen ditu. Arduragabekeria galanta erakusten du jarrera honek, alde batetik herrian sua piztu eta gero ardurak beste baten teilatuan uzten dituztelako, eta bestetik, dokumentu hauek sinatu gabe plazaratuta ez dutelako idatzi eta esandakoen ardurarik hartu nahi. Horra manipulazioaren adibide garbi bat.

Iturri ezberdinetatik irakurri eta sistema ezberdinak hurbiletik ezagutzeko aukera izan dut, eta atez ateko bilketa sistemaren aldekoa naiz, gauzak horrela garai honetan dagoen sistema egokiena dela uste dudalako. Izan ere zaborren arazoari aurre hartu eta denontzako onurak mahaigainean jartzen dituelako ezkutuko interesak alde batera utzita. Baina noski, hau nire iritzia besterik ez da.

Mesedez joka dezagun garbi gure artean, tolosar guztiok errespetua zor zaigu eta. Ongi pasa sanjoanak eta besarkada handi bat!

■ **Beñat Elozegi Ortiz de Zarate.**



Iturralde, Garmendia, Iriarte, Aierbe eta Azurza, Meltxor Ezkurdiari buruzko liburuaren aurkezpenean. I.G.L.

Meltxor Ezkurdia eskribau tolosarraren bizitza jaso du Juan Garmendia Larrañagak

Tolosako Udalak, Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin, babestu duen liburuaren aurkezpena egin dute

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako bilkura aretoa bete egin zen Juan Garmendia Larrañagaren azken liburuaren aurkezpenean. Herrian 1824tik 1864ra arte eskribaua izan zen Meltxor Ezkurdiaren bizitza jaso du Garmendiak. Liburua, pertsonaia tolosarre buruz idatzi duen seigarrena da. Aurkezpenean Ibai Iriarte alkatea, Jesus Maria Azurza, Rosa Aierbe eta Joxe Mari Iturralde izan ziren eta guztiak go-raipatu zuten Garmendiak egindako lana. Antropologo, etnografo eta idazle tolosarrak aurten 86 urte beteko ditu eta egun ere lanean jarraitzen duela nabarmendu zuten guztiak.

Tolosako Udalaren babesarekin eta Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin argitaratu da liburua. Ibai Iriartek aretoa beteta zegoela nabarmendu zuen eta horrek Garmendia «zenbatek

maizatzen duten» eta «zergatik den Tolosako seme kuttuna» erakusten duela esan zuen, eta herriaren ondarea jasotzeko lana nabarmendu zuen.

Juan Garmendia Larrañagak hartu zuen hitza eta, lehenengo, orain gutxi hil den Rafael Munoa izan zuen gogoan. Munoa liburuaren ilustrazioak egin zituen. Garmendiak azaldu zuenez, liburua inprimategian zegoela jakin zuen Munoa heriotzaren berri. «Bihotz zabaleko gizon argia eta ona, goi mailako artista, bere esanahi zabalean, lankide aberasgarria izan dut nire jardun batzuetan, hauen orriak apainduz eta edertuz», azaldu zuen Garmendiak.

Ezkurdiarekiko interesa

Liburuari buruz hitz egitean, etnohistoriaren arloan hainbat urte ikerketan aritu dela esan zuen Garmendiak, eta zeregin horretan, XIX. mendeko paperak begiratzean, Meltxor Ezkurdia eskribauak sinatutako hainbatkin egiten zuen topo. Hortik sortu zitzaion gizon horri buruzko interesa, eta bere bizitza bildu du argitaratutako liburuan. Ezkurdia 1794an jaio zen Gaztelun eta Tolosan hil zen 1864an.

Bestalde, eskribauek historian zehar hainbatetan izan duten fama txarra gogora ekarri zuen Garmendiak. Besteak beste, deabruak ere infernura sartzen uzten ez zitoten istorioa kontatu zuen.

Hitzaurrea idatzi duen Jesus Maria Azurzak nabarmendu zuenez, Meltxor Ezkurdiaren ondorengo batzuk ere eskribauak izan dira eta dira. Hain justu, Tolosako

notarioa izan zen Juan Manuel Ezkurdia eta egun Bilboko notarioa den Jose Antonio Isusi Ezkurdia.

Rosa Aierbe historialariak hartu zuen hitza ondoren, eta eskribauek historian zehar izan duten garrantzia nabarmendu zuen. Meltxor Ezkurdiak lan handia egin zuela esan zuen, eta eskribaua bizi izan zen garaia zaila izan zela azaldu zuen. Kaparetasunari buruz ere luze aritu zen Aierbe, eta XIX. mendean eta «odol garbikoa» izatearen garrantzia nabarmendu zuen. Izan ere, Meltxor Ezkurdia berak, eskribau kargua izateko, bere kaparetasuna erakutsi behar izan zuen.

Garmendiak hainbatetan egin du topo Ezkurdiak sinatutako paperekin

Joxe Mari Iturralde idazleak liburuari buruzko aipamenak egin zituen. Besteak beste, argitalpena irakurtzean oso deigarria iruditu zitzaion XIX. mendean «odol garbikoa» izatea erakutsi beharra zegoela, hau da, «kristau zaharra izatea eta ez judua».

Bestalde, Iturralde Juan Garmendia Larrañagaren lana gorai-patu zuen. Orain urte batzuk, Garmendiaren beste liburu baten aurkezpenean, hainbat ikertzaile, artean Barandiaran, eta hurrengo belaunaldien arteko zubi lana egiten zuela esan zuen. «Egun, Juan erreferentea da; ez du zubi lana egiten, berak zubiak eraikitzen ditu», gaineratu zuen Iturralde.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Apartamentua.** Jaca eta Peñíscolan apartamentua alokatzen da udarako. Interesatuek, deitu 635 737043 telefono zenbakira.

Herritarren artelanak, Aranburun

Kultur tailerretako ikasleen eta Goienetxe fundazioko eguneko zentroko kideen obrak daude ikusgai

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Aranburu jauregian 300dik gora artistek euren artelanak erakusgai dituzte. Kultur tailerretan parte hartu dutenek eta Goienetxe fundazioko eguneko zentroaren erabiltzaileek zintzilikatu edo jarri dituzte euren obrak: margolanak, komikiak, eskulanak, argazkiak, ehoziariak eta zeramika. Asteartetik larunbatera izango da zabalik, 17:30etik 20:30era, uztailaren 7a arte. Herenegun arratsaldean egin zuten inaugurazioa, eta bertan Ibai Iriarte alkateak kultur tailerretako ikasleak zoriondu zituen, eta herritarrek kultur eraikinak bete behar dituztela azaldu zuen.


Leire Markinez pintura eta eskulanen irakaslea da kultur etxean, orain zortzi urte. Ikasle gehienak emakumezkoak direla dio Markinezek, «adin batetik aurrera. Gazte jendea ere badago eta ni saiatzen naiz urtero gazte jendea tailerretan parte hartzera animatzen».

Kultur tailerretako ikasleak erakusketaren aurretik urduri egoten direla dio Markinezek: «Beraientzako garrantzitsua da oso erakusketa hau. Azken finean, urte guztian beraiek margotzen egoten dira etxekoentzako, eta erakusketa honek suposatzen du bere margolanak etxekoetz aparte beste askok ikustea. Hori gauza handia da beraiek, artista bezala, pausoz pauso dihoaztelako, eta beraien lanak ere egon daitezke erakusketa batean. Motibazio bat da beraientzat».

«Bat gehiago»

Goienetxe fundazioko eguneko zentrori joaten direnek ere parte hartzen dute erakusketan. Aurretik erakusketak egin dituzte, eguneko zentroan bertan eta GKO galerian. Orain Aranburun jarri dituzte ikusgai bere lanak, eta horrek duen garrantzia nabarmendu du Mertxe Amiano eguneko zentroko arduradunak: «Gure asmoa komunitatean integratzea da, komunitatean bat gehiago izatea, alegia. Pertsona bat gehiago bezala ezagutaraztea da gure nahia eta ez urritasunarengatik, baizik eta dugun gaitasunarengatik».

Eguneko zentrori joaten diren batzuk ere kultur tailerretan parte hartzen dutela dio Amianok. Eguneko zentroko kideek «ilusioz bizi dute erakusketan parte hartzea», esan du Amianok. «De-



Artearen hainbat alorretako lanak ikusi daitezke Aranburu jauregian uztailaren 7a arte. HITZA

nek batera jarri ditugu artelanak, denak nahastuta, elkarri laguntzen dira. Eta denak bat gehiago sentitu dira, eta harro ere bai, Aranburu jauregian jarri direlako artelanak».

Eguneko zentroara adimen urritasuna duten pertsonak joaten dira, eta Amianok azaltzen duenez, «arteak beste edozeini bezala laguntzen die garapenean: adieraztea, libreago sentitzea,

gustuak garatzea... Gure helburua eguneko zentroan bizitza aberatsa izan dezaten lortzea da, bere desioak, beharrak eta gaitasunak garatzeko. Zenbaitzuk garapen hori artearen bidez egiten dute».

→ Laburrak

Herri afarian eta herri krosetan apuntatzeko deia

LEABURU ▶ Herriko jaiak hilaren 29an, ostiralean, hasiko dira. Ekainaren 30ean, larunbatean, herri afaria eta herri kroseta egongo dira Leaburun. Antolatzaileek izena aurrez eman behar dela jakinarazi dute, ekainaren 26a baino lehen, hain zuzen ere. Herri afariko txartelak erosteko ostatura edo udaletxera joan behar da, eta herri krosetan parte hartu nahi duenak, izena emateko udaletxera deitu behar du.

Titanic gaitzat hartuta dantza emanaldia, gaur

TOLOSA ▶ Izaskun Arriola Dantza Eskolako ikasleek urteroko emanaldia eskainiko dute Leidor aretoan, gaur, 20:30ean. Aurten emanaldia egiteko erabiliko duten gaia, Titanic izango da.

Behartzana txapelketako partida, gaur, 19:00etan

AMASA-VILLABONA ▶ Behartzana pilota txapelketaren barruan partida bat jokatu da aste honetan, Villabonan. Soto-Okiñena Mendia-Goikoe-txarean aurka ariko dira gaur, 19:00etatik aurrera.

Oinkariren dantza ikastarotako izen ematea

AMASA-VILLABONA ▶ Oinkari dantza taldeak uztailean irekiko du datorren ikastaroa. Aurten izena emateko sistema aldatu egin dutela azaldu dute Oinkaririk, eta informazio guztia www.oinkari.net helbidean zintzilikatu dutela. Lehendabizi, antolatzaileei haurren datuak eman behar zaizkie, ondoren 20 euro ordainduz, uztailaren 31 baino lehen.

Dietetika eta nutrizio aholkuak, gaur, Belatan

TOLOSA ▶ Cristina Perez Garay, Asuncion klinikan dietetika eta nutrizioko mediku espezialistak, GM1a neurtu eta nutrizio kontuetan aholkuak emango ditu gaur Tolosako Belate osasun zentroan, 11:00etatik 13:00etara. Kontsulta edo ikastaroa dohainik izango da.

Odola emateko aukera sendagile etxean, gaur

ALEGIA ▶ Odola emateko aukera egongo da gaur, Alegian. Odola eman nahi duten herritarrek, 19:00etatik 21:00etara, sendagile etxera agertu beharko dute.

Villabonatik Tolosara bidean, antzinako Donejakue bideak gaur egungo trenbideari jarraitzen dio, nekazarien soro eta belazeen albotik. Herrigune batetik besterako bidea egingo du ibiltariak, Anoetatik pasaz.

Antzinako erromesen bideetan

Itzea Urkizu

XII. mendean agertu zen Amasa, lehenengoz, dokumentuetan. Villabona, berriz, beranduago sortu zen, eta hainbat urtetan Amasako auzo izan omen zen. Amasarrek, Gaztelako bideak nahiz Donejakuerako erromesen ibilbideek erakarrira erabakitzen zuten Villabonara jaistea, eta hain zuzen ere, antzinako erromesen bide haieetatik barrena burutu beharko da, Villabonatik Tolosarainoko ibilbidea.

Villabonako tren geltokitik jaitsi eta Oria gainetik zeharkatzen duen zubitik, Errebote plazara iritsiko da ibiltaria. Egungo pilota jokorik zaharrenetakoa dena Ipar Euskal Herrian sustraituagoa den arren, Hego Euskal Herrian, Donostiako Zubietako auzokoa eta Oiartzungo dira bakarrak, Villabonakoarekin batera. Udaletxea ere bertan dago gaur egun.

Errebote plazatik Berdura plazak zubi lanak egingo ditu, Jesusen Bihotza elizara iristeko. Hain zuzen ere, parean hartu beharko



Villabonatik Anoetarainoko bideak trenbidea jarraitzen du. Behean, Villabonako Errebote plaza eta Anoetako eliza. I. URKIZU

du ibiltariak, kiroldegi atzetik, Donejakue bidea. Erromesen bideak, egungo trenbideari jarraitzen dio gertu-gertutik, eta inguruko nekazarien soro eta belazeak lagun izango ditu bisitariak. Anoetara iritsi eta plaza eta eliza

bisitatu ondoren, Donejakue bidea jarraitu beharko da herri sarreran, Tolosara ibai ertzetik iritsi arte. Bertan, Berdura plazako eserlekuetan atsedean hartu ahal izango du ibiltariak, erdiguneko geltokian tren hartu aurretik.



DATUAK

- **Luzera.** 6.800 metro.
- **Ezaugarriak.** Joana.
- **Hasiera-bukaera.** Villabona-Zizurkilgo tren geltokia-Tolosako erdiguneko tren geltokia.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak eta tren geltokietan eskaileak.
- **Azalpenak.** Ibilaldia Santiorako bideaz baliatzen da.
- **Interesguneak.** Villabona: eliza, udaletxea, Erreboteko plaza. Anoeta: eliza. Tolosa: Jesusen Zerbitzariak komentua.







Ezenarro

SOLUCIONES EN ALUMINIO Y PVC



SAN FRANTZISKO 26, Behea
20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36

ezenarrosl@hotmail.com

GARMENDIA OTAOLA 3, Behea
20200 BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02

PVC • ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA • AROZTEGI MISTOA • POLIURETANO • BARANDAK • HORMA-ARMAIRUAK

Velma Powell entzuteko aukera egongo da Tolosandblues jaialdian

Iñigo Martin koordinatzailearen ustez, White Towels Blues Bandek ezustekoa emango du

Iñigo Martinek talde guztien maila goraipatu zuen, eta White Towels Blues Bandi buruz, jaialdiko ezustekoa izango direla azaldu zuen. Hondarribiko taldearen blues elektrikoa eta Lisi Garcia

abeslariaren ahots berezia nabarmendu nahi izan zituen. Cumeillas eta Talaveraren maila ere azpimarratu nahi izan zituen Martinek, aurrez ere, Tolosan izanak direla gogoratuaz.



Iñigo Martin, Jokin Ansorena eta Ibon Leundak aurkeztu zuten jaialdia. A. I.

Asier Imaz

Velma Powell bluesaren sorterrian jaio zen, hau da, Chicagon. Oso gazterik hasi zen kantuan, eskolako eta elizako abesbatzetan. Spiritual eta Gospolean formazioa hartu zuen ondoren, jazz eta bluesa kantatzeko. Ameriketako Estatu Batuetako hamaika areotatik pasa ondoren, berehala iritsi zen Powellen oihartzuna Europara. Arrakasta lagun, herrialde gehienetan bere ahots zoragarriaz gozatzeko aukera izan dute, eta hilaren 30ean, Tolosak izango du ohore hori; Tolosandblues 012 jaialdiari esker.

Hiru egun iraungo dituen blues jaialdia ekainaren 29an hasiko da, Down Town Trio-ren eskutik. Tolosako Udala aritu da zortzigarren edizio hau antolatzen, eta urtero bezala, herriko tabernarien laguntza izan du. Koordinatzaile lanetan, Iñigo Martin aritu da, eta guztiek, tabernarien ekarpena eskertu zuten, krisi garaian azpimarratzeko laguntza eskaini dutelako.

Tolosandblues 012ko egitarauari dagokionez, guztiek aipatu zuten Velma Powellen maila.

↓ Egitaraua

EKAINAK 29, OSTIRALA

- **22:30ean.** Down Town Trio, Euskal Herria plazan.
- **00:00etan.** White Towels Blues Band, Frontoi kafetegian.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **13:00etan.** Joan Pau Cumeillas eta Miguel Talavera, Ilargi Tabernan.
- **20:00etan.** Belceblues, Euskal Herria plazan.
- **22:30ean.** Velma Powell & Blueedays, Plaza Berrian.
- **00:00etan.** Joan Pau Cumeillas eta Miguel Talavera Maria Luisa Agirre plazan, Tontokalean.

UZTAILAK 1, IGANDEA

- **13:00etan.** Joan Pau Cumeillas eta Miguel Talavera, Ilargi Tabernan.

Etxebizitza berriztatzeko mailegurako

-%30 eko interes-tasan*

Deskontu-aldia. Orain gehien nahi duzuna gutxiago kostatuko zaizu. (ITNri ezarritako deskontuak.) Informatu zaitez zure bulegoan.

kutxabank

kutxa gehiago gara.

Informazio gehiago: www.kutxabank.com

Triple Ak hil zuen Garaialde omenduko dute, bihar

Alegiako taxista 1982. urtean hil zuten; taxi geltokiko plazan plaka bat jarriko diote eta omenaldi xumea egin

Rebeka Calvo Alegia

Biharkoa egun berezia izango da Alegiako Paulo Garaialderen familiarentzat. Alegiako taxista Triple A taldeak hil zuen 1982. urteko urtarrilaren 2an, Beraste-

gin, Plazaola trenbidearen inguruan, eta bihar 19:00etan, bere omenezko plaka jarriko dute taxi geltokiko plazan. Udalak eta Alegiako ezker abertzaleak omenaldi xumea egingo diote Paulo Garaialderi bere heriotzaren 30. urteurrenean.

Noren hilketa?

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK otsailean kaleratutako erreportajea ikusi ahal da QR kode hau eskaneatuta. tolosaldea.hitza.info webgunean ere irakurri ahal da erreportajea, albiste honekin batera.

@ tolosaldea.hitza.info

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK otsailean kaleratutako erreportajea ikusi ahal da



QR kode hau eskaneatuta. tolosaldea.hitza.info webgunean ere irakurri ahal da

erreportajea, albiste honekin batera.

ruan egondako nahasmena argitu zen.

Paulo Garaialde urtarrilaren 1tik 2rako gauean hil zuten, 60 urte bete zituen egunean. Urte hauetan guztietan nahasmena izan da hilketaren inguruan; jendaratean ETA izan zenaren uestea geratu zen, baina garaiko hainbat egunkaritan ikusi daitekeenez, ekintza Triple A taldeak hartu zuen bere gain.

ETA ez du inoiz ekintza egin zuenik onartu; *Egin* egunkariak 1982. urtean erakundearen agiria

kaleratu zuen, eta bertan, ETA erakundeak taxista ez zuela hil esan zuen.

Triple A

Triple A taldeak bere aldetik, mezu kontrajarriak kaleratu zituen hainbat komunikabideetan.

Hilketa onartu zuen behin baino gehiagotan, hala ere, adibidez, *Deia* egunkarira 1976. urtetik 1982. urterarte egindako ekintza guztien zerrenda bidali zuen eta bertan hilketa bere gain hartu zuen taldeak.



Garmendia eta Artola irakasleak, ikasle batzuekin. Hilabete da klaseak amaitu zituztela E.MAZ

Esperientzia pilotu moduan abiatu zuen euskara irakasteko proiektua udalak; atzerritarrei eta euskaraz ez dakiten alegiarrei boluntario moduan klaseak eman dizkiete hiru herritarrek, «gustura» geratu dira guztiak.

Euskarak elkartuta

Eneritz Maiz Alegia

Otsailean ekin zioten proiektuari, eta maiatzaren amaieran bukatu zituzten klaseak. Herrian euskara indartzea eta atzerritarrei gizarteratzen laguntzea zuten helburu. Udala, gizarte zerbitzuen bidez jarri zen harremanetan bai irakasle eta baita ikasleekin ere. Lau hilabetez aritu dira klaseak ematen, eta esperientzia pilotu moduan egin dute.

Hasieratik izan zuen arrakasta proiektuak, eta 40 pertsonak eman zuten izena. Bost taldetan banatuta aritu dira lanean, eta astean bi ordu izan ditu bakoitzak. Batzuk, euskarazko lehen hitzak ikasi dituzte, besteek, hitz egiteko pausoa eman dute, eta azkenik talde batek, gaztelaniaz ikasi ahal izan du.

Maidar Artola, Irati Garmendia eta Mikel Artola izan dira boluntario moduan klaseak eman dituztenak. Ia hilabete da klaseak

bukatu dituztela, eta bi irakasle eta ikasle batzuk esperientziaren inguruan hitz egiteko elkartu dira: Maria Celeste Markes eta Andrea Lorero portugaldarrak, Arkia Fkhiy casablancarra, eta Pepe Herrero eta Txaro Basañez alegiarrak. Ikasleen gehiengoak atzerritarra izan da.

«Oso esperientzia ona»

Irakasleek esperientzia «ona eta polita» izan dela adierazi dute. «Ikasi ere dezente egin dugu. Nik irakasle izateko ikasketak egin ditut, baina ez nuen esperientziarik, eta horretarako baliatu dut», argitu du Garmendiak. Mikel Artola irakasleak zuela esperientzia kontatu dute, eta berak gidatu duela klaseen nondik norakoa. Maidar Artolak, aldiz, gaztelaniazko klaseak prestatu behar izan ditu.

Pepe Herrera eta Txaro Basañez irakasleen uestez, astean bi ordu modu geratzen dira. Eta portugaldarrek ere, «hurrengo ikasturte-

an antolatzen bada jarraipen handiagoa izatea gustatuko litzaziguke, eta oso esperientzia ona izan da», gaineratu dute. Elkarrekin aranean, jendea ezagutzeko ere balio izan die klaseetara joateak. «Gure kultura gehiago ezagutu dute, eta guk beraien herrialde-etako kulturak ezagutu ditugu», argitu du Maidar Artolak.

Boluntario lana egin dute, baina klaseak eman ahal izateko aurrerik lana egin behar izan dute. Ikasle guztiek, irakasleei loreak botatu zituzten, eta gustura egin dute klaseetarako bidea. Guztiek garbi adierazi dute errepikatzen moduko esperientzia izan dela. Esperientzia ez dute honetan geratzea nahi, baina udalak benetan proiektuaren aldeko apustua egiten badu, «boluntario lana utzi eta formalidadea» eman beharko zaio. Askok ikasi dute, eta hobeto antolatzeko moduan izango dira.

Ia ikasturte berriarekin, berriz ere, euskaraz ikasiz elkartzeko modua egiten duten.

Haur parke zaharra lapurtu dute San Joan iturritik

Herriguneko parkea lan batzuegatik kendu, eta San Joan iturrian jartzeko asmoa zuen Baliarraingo Udalak

E. Maiz Baliarrain

Baliarraingo Udalak duela ia urtebete hasi zituen herriguneko obrak. Hori dela eta, udaletxearen atzean kokatuta zegoen haur parke zaharra bertatik kendu egin behar izan zuten.

«Aprobetxatzeko moduan zegoen parkea, eta ez botatzea erabaki zen. Txirristaduna eta egu-

rrezko egituraduna zen parkea, eta San Joan iturritik atsedan lekuan jarri nahi zen», adierazi du udal langileak.

Udalak denboraldi luzean edukitu du haur parkea San Joan iturri-igota. Ordea, muntaiak egin gabe izan dute bertan.

Haur parkea kokatzeko asmoarekin, asteazkenean igo ziren San Joan iturriak, eta beraien harri-durarako, haur parkea ez zegoen bertan. «Lapurtu egin dute parkea. Astebete lehenago ziur gabe bertan zegoela, baina ez gara konturatu ere egin noiz lapurtu duten», nabarmendu dute udal-etik.

oalegiadea@hitza.info

→ Laburrak

Autopista elektrikoaren aurkako elkarretaratzea

LEITZA » Dicastillo eta Itsaso arteko autopista elektrikoaren kontrako plataformak, biharko elkarretaratzeak deitu ditu. Araitx, Imotz, Larraun, Basaburua eta Leitzaldekoek, Leitzako plazan izango dute hitzordua. 12:30ean izango da. Datoren astetan erabakiko dute, Madril-en zein linea bultzatuko duten. «Inoiz baino garrantzitsuagoa da proiektu honen kontrako mobilizazioetan parte hartzea eta herritarro onurarik ez, eta alderantziz, hainbeste kalte sortzen diguten proiektuekin herrietan ez gatzela bat erakustea», adierazi dute plataformatik. Leitz eta inguruetako herritarrei dei egiten diete, elkarretaratzean parte hartzeko.

III. Erremonte Kopako partida jokatu da, etzi

AMEZKETA » Amezketako pilotalekuan ohikoa izan ez arren, igandean, hilaren 24an, erremonteko partidak jokatu dituzte. 12:00etan hasiko dira partidak jokatzeko, eta Urriza eta Etxeberria III.ak, Etxebe II eta San Miguel izango dituzte aurkari. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2012ko Saria da jokatzeko ari direna, hau da, III. Erremonte Kopa. Ligaxkako lehen bi partidak pasa dira eta Amezketakoa hirugarrena izango da.

Kiroldegia eta kultur etxea astelehenean, itxita

IBARRA » Ibarako Udalak, herritarrei jakinarazi nahi die, udaleko langileen komiteak onartutako lan egutegiaren arabera, hilaren 25ean, astelehenean, Ibarako kultur etxea eta kiroldegia itxita egongo direla.

Jai giroa izango da bihar herri gehienetan, suaren inguruan

Udan sartu gara eta ospatzeko, sua piztuko dute herriko plazetan; jatekoa, musika eta dantza izango da

Irigo Terradillos

Sartu gara udan, eta urteko gauek motzenak ditugu egunotakoak. Motza ez ezik, berezia ere bada biharkoa, San Joan sua piztu, eta

beraren inguruan dantza, musika eta jatekoa delarik, festa giroa nagusituko baita ia herririk gehienetan.

Mendeetan mantendu den ohitura honen azalpenak era askotarikoak dira. Suak eguzkia irudikatzen duela, eta izpiritu txar edo gaiztoak uxatzeko suaren gainetik salto egin behar dela dio usadiorik hedatuena. Hala, hiru bider salto eginda, urte oparoa izaten omen da.

Era berean, norbere bizitzan al-

datu nahi den hori sutara botata, edo paper batean idatzita, lortu egiten omen da. Bestalde, sua piztu aurretik lore erramu bat etxean zintzilikaturik jarri gero, urte osoan horrela mantendu, eta hurrengo urteko sutara botata, osasuna lortzen omen da.

Hainbat dira suaren atzetik dauden sinesmenak. Horiek albo batera utzita, eta suaren beraren magiaren eraginez edo, xarma berezidun gaua izan ohi da biharkoa.



Suaren gainean salto egingo dute herritar ugari bihar. I.GARCIA

↓ Ekainak 23: San Joan bezperako egitaraua, herriz herri

ABALTZISKETA

- **10:00.** Urme jolasak.
- **15:30.** X. Mus Txapelketa Larrunarri elkartearen.
- **21:30.** San Joan sua.
- **Jarraian.** San Joan dantza eta soka dantza herriko gaztetxoaren eskutik.
- **Ondoren.** Dantzaldia Unsaian aniekin.
- **Atsedendian.** Aulkijokoa egingo da, eta irabazleak saria izango du.

ADUNA

- **20:15.** Kalejiran irtengo dira Uztartza aparkaleku azpiraino. Bertan sua piztuko dute. Amalurren emankortasun errotua egingo dute hurrek eta emakumeek, abestuz eta dantzatuz.
- **Ondoren.** Afaria egingo dute Txulobi elkartearen.

ALEGIA

- **20:45.** Pedro Joxe Iguain alegiarrak konposatutako Salve Regina abestuko du Txintxarri abesbatzak Joan santuaren ize-na daraman elizan.
- **21:00.** San Joan sua piztuko dute herriko plazan. Txintxarri abesbatzak, Sutarrri dantza taldeak eta herriko txistulariek alaituko dute gaua, eta Bordon Dantzaren doinua entzuteko aukera izango dute.

ALKIZA

- **20:00.** Guraso Elkarteak antolatuta, afari merienda egingo dute plazan.
- **22:00.** Sua piztu eta Sorgin dantza eta kantuak izango dira suaren inguruan.

ALTZO

- **21:15.** Sua piztu eta bedekintu egingo dute, eta Artea Dantza taldearen emanaldia izango da.

- **Ondoren.** Zahagi ardoa egingo dute. Edaria udalak jarriko du eta jatekoa bakoitzak berea eraman beharko du.

ANOETA

- **18:00.** Buruhandi eta erraldien kalejira herriko txistulariekin.
- **20:30.** Herri afaria plazan.
- **22:15.** Txalapartariak San Joan bezperako suaren jaia iragarriko dute.
- **Ondoren.** Suaren inguruan San Joan Zortziko kantak eta eromeria. Markox Landa aita-semeak aho soinuarekin.

ARESO

- **17:00.** Askaria gaztetxoentzat.
- **17:30.** Jokoak eta tailerrak haurrentzat.
- **21:00.** Afaria egingo dute herriko plazan. Norberak bere jantzia eraman beharko du, eta mahaiak eta edaria udalaren eta Guraso Elkartearen artean jarriko dituzte.
- **Jarraian.** Sua piztuko dute.

ASTEASU

- **15:45-16:15.** Mus eta Txintxon txapelketan izena emateko epea. Orduz kanpo ez da bikoterik onartuko. Mus txapelketako bikoteetarikoa batek herrikoa izan beharko du.
- **16:20.** Mus Txapelketako zozketa.
- **16:30.** Mus eta Txintxon txapelketa frontoian.
- **19:00.** Gaztetxekoek antolatutako binakako frontenis txapelketaren finala.
- **20:00.** Asteasuko dantzari txikien emanaldia plazan.
- **21:00.** San Joan sua herriko plazan.
- **Ondoren.** Gurasoek antolatuta San Joan dantza, eta jarraian, txokolatea, ogitartekoak eta eromeria.

BALIARRAIN

- **20:00.** Afari-merienda San Juanen (eguraldi txarrekin kirroldegiko aterpean). Norberak eraman beharko du afaria, eta jai batzordeak edaria jarriko du. Haurrek eta gurasoek postreak eta kafeak eskainiko dituzte, urteko ekintzetarako diru pixka bat biltzeko asmoz.
- **Ondoren.** Sua piztuko dute.

BERROBI

- **20:30.** Herri afari paganoa, Urruti baserrian. Norberak eraman beharko ditu platerak, edalontziak eta mahai-tresnak.
- **Ondoren.** Herriko gazteen trikitixa doinuak, eta sua.

BELAUNTZA

- **13:30.** Txupinazoa.
- **19:00.** Kontzertua, San Joan elizan.
- **21:00.** San Joan bezperako sua, kanpaiekin eta suziriekin.
- **Ondoren.** Herri afaria.
- **23:30.** Latino dantza.
- **Jarraian.** Elustondo anai-arreba trikitilarietako eromeria, goizaldera arte.

BERASTEGI

- **16:00.** Eskolako umeen erakustaldiak: pilota, dantza, judo, trikitixa...
- **21:00.** Afaria frontoian. Norberak jatekoa eraman beharko du, eta guraso elkarteak edaria eta kafea jarriko du.
- **Ondoren.** San Joan dantza saioa eta sua.

BIDEGOIAN

- **20:30.** Norberak eramanda, afari-merienda, parkean. Edariak, berriz, udala eta Ernio guraso elkartearen kontura izango dira.
- **Ondoren.** San Joan sua piztuko dute.

GAZTELU

- **20:30.** Afari-merienda, kirol eta kultur elkartearen.
- **21:30.** San Joan sua piztuko dute plazan.

HERNIALDE

- **20:30.** Norberak eramanda afaria egingo dute, udalak zahagi ardoa jarriko du.
- **22:30.** Sua piztuko dute, eta herriko dantzarien emanaldia.

IBARRA

- **20:00.** Afaria, plazan. Norberak bere afaria eramango du, eta Hauspoa elkarteak mahaiak jarriko ditu.
- **21:30.** Sua piztuko dute, eta Alurr dantza taldekoek San Joan dantza eskainiko dute.
- **22:30.** Erromeria, eta ondoren, Giroarte dultzaina taldearekin dantzaldia.

IKAZTEGIETA

- **18:00.** Alonso-Esnaola eta Mikel Gofiñen arteko pilota partida.
- **20:30.** Afaria plazan.
- **22:30.** Sua piztuko dute.

IRURA

- **22:00.** Sua piztuko dute herriko plazan. Sua herriko dantzarien dantzek alaituko dute, eta udalak ardo goxoa eta goxokiak banatuko ditu.

LARRAUL

- **21:00.** Afaria egingo dute.
- **22:00.** Sua piztuko dute plazan.

LEITZA

- **18:00.** Haurrek ingurutxoak dantzatuko dute, txistulariekin.
- **21:30.** Afaria plazan. Udalak edaria jarriko du, eta Aurrera el-

karteak kafea eta kopa. Jatekoa norberaren kontura.

- **Ondoren.** Sua piztuko dute. Musika eta txaranga izango da, eta tabernak gau osoan irekita.

ORENDAIN

- **21:00.** Herri afaria egingo dute. Jatekoa norberak eramango du, eta udalak zahagi ardoa jarriko du.
- **22:00.** Sua piztuko dute plazan.

OREXA

- **19:30.** Herriko txistulariekin kalejira, Urrutxugain auzoraino.
- **Ondoren.** Sua piztuko dute.
- **20:30.** Afaria egingo dute.

TXARAMA

- **20:00.** Afaria plazan.
- **Ondoren.** San Joan sua piztuko dute. Traste zaharrak prestatzeko eskatu diete auzotarrei.

TOLOSA

- **22:00.** San Joan sua Andre Maria plazan egingo dute udalbatza bertan dela. Udaberri Dantza Taldeak eta Tolosako Musika Bandak eta Tolosako Orfeoia jardungo dute.
- **Ondoren.** San Joan Zortzikojo ondoren, Tolosako Musika Banda kalez kale ibiliko da.

VILLABONA

- **22:00.** Sua piztuko dute Errebote plazan. Oinkari eta Oinargi dantza taldeak eta Eresargi abesbatza ariko dira.

ZIZURKIL

- **22:00.** Goian, udaltekaren aurrean sua piztu, eta txokolatea izango dute.
- **22:00.** Behean, suaren bueltan, herriko dantzariak eta jatekoa izango dira, plazan.



≈ 20°
≈ 14°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	24°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldia: 687 410 118. ibarraldia@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldia: 687 410 118. leitzaldia@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa:
943 65 46 10.

■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa:
112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M.
Gernikako arbola, 3.
Telefonoa:
943 65 10 40.

■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa:
112.

ETZI

■ **Tolosa.** Olarreaga, M.
Martin Jose Iraola, 10.
Telefonoa:
943 67 24 38.

■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa:
112.

ETZIDAMU

■ **Ibarra.** Iturrioz, I.
Euskal Herria, 3.
Telefonoa:
943 67 09 15.

■ **Arribe.** Garmendia, A.
Kale Nagusia.
Telefonoa:
112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M.
Amaya kalea.
Telefonoa:
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Maddi Altuna Dorronsoro (Abaltzisketa). Gaur 8 urte!
Zorionak eta muxuak, familia osoaren eta bereziki Alaitz, Asier eta Enekoren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

San Miguel Ardoak

• Granel • Cava • Sagardoa
• Bag in box • Txakolina
• Ardoak Jatorrizko Izendapena

Kale Nagusia, 12 • IRURA • vinosanmiguel@hotmail.com
Tel.: 943 69 13 65 • 680 24 08 05 • Faxa: 943 69 08 40

Herri Pasaletua, 95
28008 Donostia
943 310 873
www.ceinpro.es

TITULAZIO OFIZIALAK

1. AURREINPRIMAKETA DIGITALEAN TEKNIKARIA ERDI MAILAKO
2. DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA GOI MAILAKO
3. GOI TEKNIKARIA 3D ANIMAZIOAK, JOLASAK ETA INGURUNE INTERAKTIBO ADITUA GOI MAILAKO

TITULAZIO BERRIA

ILEAPAINDEGIKO GAIK

Marcel

EDERGINTZA

Santa Klara, 9 • TOLOSA • 943 67 19 30

LEABURUKO OSTATUA

UDAKO ORDUTEGIA (Egunero 11:00etatik 24:00etara)

- Ogitartekoak, plater konbinatuak, ... asteko gau guztietan.
- Eguneko menua 9 eurotan
- Asteburuko menua 18 eurotan

Etorri eta gozatu. 943 674 277

**ZERGATIK GAIZKI EGITEN jarraitu,
ONGI EGIN badezakegu?**



Nahastutako bilketa = Kutsadura
=Zabortegia/Errauste planta



Gaikako bilketa = Birziklatzea
= Osasuna



Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz